

editoriala

# Ley de Lynch

Después del atentado mortal contra Miguel Angel Blanco las fuerzas del Pacto de Madrid, nodriza de los pactos de Ajurúa Enea e Iruñea, han desatado la más obscena de las campañas de criminalización contra el independentismo vasco.

Henchidos de satisfacción por el indudable éxito de su campaña de *agit-prop*, envalentonados en el centro de la masa, crecidos por la efectividad de sus brigadas violentas, los responsables de la política anti-independentista han perdido la mínima discreción exigible y cedido, en plena euforia, a la tentación de proclamar la vigencia de la Ley de Lynch. Han confundido las demostraciones masivas contra ETA, con la prueba de su propia impunidad a la hora de emprender una nueva fase represiva, más descarnada, contra la izquierda abertzale. Y con tan peregrino bagaje político han dado un paso en falso al grito de «A por ellos». Como hicieron cuando se creó el GAL. Igual que cuando señalaron a Herri Batasuna la misma víspera del atentado del Alcalá. Igual que cuando detuvieron y ahogaron a Zabala. Igual que en tantas inolvidables ocasiones.

Y han dado en falso ese paso porque, al calor de las soflamas de Jaime Mayor Oreja, los partidos alineados en el Pacto de Madrid han olvidado que, después de la trágica muerte de Miguel Angel Blanco, ni una sola de las constantes estructurales del conflicto que enfrenta a Euskal Herria con el Estado español se ha modificado. Sólo ha cambiado el grado de envalentonamiento de las brigadas fascistas dedicadas a atacar a los independentistas. No ha cambiado el carácter violento de la parte española ni la firme determinación de los abertzales a defender sus postulados, sus haciendas y sus vidas.

Hoy, blandiendo la Ley de Lynch, los políticos de los pactos disfrutan las mieles de una victoria virtual, como tantas otras anteriores. ¡Ojalá no tuviéramos que editorializar nunca recordando estos términos!

hoy escribe

# Anakronismoak

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA 'TXILLARDEGI' / *Luzer*

**E**z dut esperantza handirik inor komentitzeko. Baina arken egunetako gertakarien larritasunez ongi jabeturik, baztertu, iraindu eta mehatxatu diren abertzaleen irizpidea azaltzen saiatu behar dudala iruditzen zait.

Nork sinets dezake, hasteko, Miguel Angel Blanco-ren heriotza bortitza senditu ez dugunik? 29 urteak aspaldi bete genuenok, nola ez genuke ulertuko trajeria horren hisa? Nola ez somatuko Mari Mar gaztearen etsipen etsia?

Bihotzez senditu dugu dena. Zinez. Hain zuzen guk, zapalketa politikoaren ondorioak oso bertatik ezagutu ditugunik, inork baino hobeki konprenitzen dugu lurralde honetan oso aspaldianik jasaten den sofrikario etengabea. Gu geu ere preso, deserritu, langabetu, eta mila eratako «proskritio» izan ondoren, hobeki ulertzen dugu Euskal Herriak pairatzen duen sofrimendua inork baino.

Nola ulertuko, ordea, Ermuko trajeria; nola, bai, langileria ezina zinez senditzen duten berberek, Ameriketako indioekiko anaikasuna irakasten dutenek, eta munduko bigeabekeriekiko sendibera agertzen direnek, Ermuko gertakari latzak gaitzetsi nahi ez izatea?

Gauza hauek ulertuko ez dituguno, etorkizuna beltz.

Azkeneko hilabete hauetan, behin eta berriz, dozenaka aldz segurki, Donostiako gose-grebalariek bisitatu ditut. Itoitz ondoko Orbaltz herririkako eliza-

*Bizi izan dugun aste doilorra eta bortitza berriro gertatuko ez bada, Madrilék, «de una vez por todas», gauza bat ulertu eta sinetsi behar du: hemen nazio-arazo larri bat dagoela*

txoan lurgorrian zeutzanak ere bai. Urte 1'erdiriz egon dira isilik, gandhisismo betean, euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzen.

Kasorik ez. Egun hauetan gainezka isuri zaigun prentsa, telebista, mediak oro, txintik atera gabe egon dira. Nahiz presoak etxetik hurbil kokatzeko eskabidea, denaz gain, legean egon.

Alta, presoen arazo hori, gutziz mingarria da. Presoekiko kezka. Blaquez-ek dakikeenez, mendi-gaineko Sermioian dator, ene orimenak desbideratzen ez banau... Ustel bitez! Baita batzutan, eta 19. gartzelaurte betetzear denean, odol-isurketarik egon ez den kasotan ere. Torre Altonaga, kasu.

Kontestu horretan gertatu dira gertatutakoak. Eta honek ezer zuzenesten ez badu ere, azaldu egiten du. Eta une larri honetan ulertzen saiatu behar da aurretik.

Baina urrunago joanda. Zeren-eta urrunago joan gabe ez baita Euskal Herria gertatzen dena ulertzen.

Herri hau, Euskal Herria, herri bat da. Katalanek esan ohi duten bezala, «una nació». Auto-Determinazioa eskubidea du beste edozein herri bezala). Eta gaur gaurkoz, hiru partetan zatikatu, asimilazioa kondemnatuta, desagertzear besterik ez du herri gisa. Eta hau hobeki dakigu Sozio-Linguistikaz ari garenek, beste inork baino.

Herri Baltikoaren garaian, 1988-1989 urteetan, eta Sovietar Federazioaren desagintzakoan, inperioen ilunabarra zetorrela zirudien (Jugoslavia, Txeko-Slovakia). Eta, katalanekin bateratsu, Auto-Determinazioaren aldeko mugimendu zabala namitu zen Euskal Herria.

Erdipurdi, gaizki, memintuaren garrantziaz jabetu ez ginelarik, zerbait lortu zen. Bilboko eta Iruñeko manifestazio erraldoien ondoren, Gasteizko Parlamentuaren Agiria onartu zen (1990). Baina berehala, PSOREn presioen ondorioz, PNVk amore eman zuen. Auto-Determinazioa «en el plano de las ideas» eta «al margen de la política real» izan zuten.

Eta geroztik euskal arazo geldikeria osoan dago.

Geldikeria hori areagotu egin da PPREn etorreraz geroztik. Eta egun hauetan ere, nabarmen agertu da: ja dago. Españolak «behin eta betirako».

Hots, Madrilén. (eta Parisen) hau ulertu, sinetsi eta aintzakotzat hartu nahi ez badute ere, hemen bere Askatasun nazionala nahi duen herri bat dago. Ez gara espñolak. Ez dugu izan nahi. Eta honetan ez dago arraza-

keriarik eta ez horrelakorik, nire atona Madrilén sortia zen, eta ene etxean gartzelantza mintzo ginen.

Euskal Herriak, kondairan mila leku eta mendetan gertatu izan den bezala, ez zuen bere lekua lortu aspaldiko mendetan: txikiak ginelako, Ameriak aukera onak eskaintzen zituelako, nahi dena. Eta geroztik mangu gaude. Eta nazio kontzientzia azkartu ahala, gero eta okerrago.

XVI. mendean sutan eta odolatan ito zuten Nafarroa Askatua, XIX. mendean bi karlistada odoltsu eta ezin trajikagoetan nagusitu zen Madril Hego Euskal Herriaz. 1937an odolatan ito zuten Madrilék lehenengo Autonomia, gero 40 urtez fazismoa imposituz.

Intelektual batek «*macro-nico*» bataiatu gaitu egun hauetan: eta oso intelektualak ez diren espainiar osutek, «putakume» deitu gaituzte marrantatu eta aspertu arte.

Zergatik gara gu anakronikoak eta putakumeak, eta estonianarrak edo esloveniarrek ez?

Bizi izan dugun aste doilorra eta bortitza berriro gertatuko ez bada, Madrilék, «de una vez por todas», gauza bat ulertu eta sinetsi behar du: hemen nazio-arazo larri bat dagoela. Eta gertatu diren (eta gerta daitezkeen) leherketa negargarriak ekiditeko, bidea ez dela iraina eta abertzaleen ehiza; Auto-Determinaziorako bidea zabaltzea baizik.

Bilotzean min, hauxe iruditzen zait soluziobide bakarra.

# lópez & pérez

